

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hegoak astinduz



Igor Estankona



Antologia

STEPHANE MALLARME

Itzultzailea: Josu Landa
Susa, 2016

Stephane Mallarmek (Paris, 1842–Valvins, 1898) ezinezko ahapaldia, ezinezko liburua, iristerik ez zegoen obra idatzi zuen. Orain Josu Landak itzuli du inposibilitate hori guztia, edo hobe, haren lagin bat, perfektioz gertuen egon den poetaren ahotsa gerturatuz. Ekarri ere errimarekin ekarri du gainera, Munduko Poesia Kaieretarako Miguel Hernandez itzuli zuen modu-moduan. Emaizta ederra otu zaigu: “Nornahi bakar estiran/ zisne eta kai ezean/ zaharkituaren miran/ nire so ezerezean”.

Mallarme irakurriz ematen du irakurtzen ari garela denboraren dekantazioa hitzetan. Batzuetan eternitatearekin dago obsesionatua, Edgar Allan Poeren hilarriari kantatzen dionean legez, eta beste batzuetan harrapatu nahi luke momentu bat, tximeleta baten hegada labur-laburrean kabitutaz: “Lepo finez zisneak, gladiolo gorrikara,/ erbeste-ko arimen jainko erramu orria/ gori nola goiz-alba presatuen ikara/ serafinen behatza bezain hori-gorria”.

Mallarme obra gorenen poeta bat izan zen, hizkuntzaren ikertzaile, erritmoaren legeetan sinesten zuen klasiko handietako bat. Horregatik askotan daude bere poemak opera handietako agertokiaren legez kartoi-harrizko marko onirikoetan kokatuak, ortu santuetan, gauerdietan, saloietan ibiliko zara liburu honetan zehar. Eskapismoak daroa exotikora, ametsera: “Errubiez ereinda larrutzen duen duda/ zuzi babesle eta alaia-aren modura”.

Norberarengan hitz solteek sorrarazten duten oihartzuna da poemaren osotasuna bezain garrantzitsua. Misteriozko paisaietan

gertatzen diren gauza lausoak gure irudimena dira. Poeta ere desagertu egiten da kasik, eta hitz egiten dute unibertsoaren indar ez-kutuek. Mallarmen poesia da ulertu baino gehiago dastatu egin behar den horietakoa, apurka-apurka harrapatzen zaituena eta esanahiaz harago eroan. Rimbaud da beste bat. Baudelaire ere bai. Poe. Korronte bat gaur egunera arte iritsi dena.

Tradizio horren haritik etorri ziren sinbolismoa eta are surrealismoa bera ere. Seinalak ulertu ez arren ere, badago zer edo zer kilika eragiten dizuna: badakizu ez dela ari deskribatzen dituen gauzei buruz; gauzok unibertsoaren misterioei buruz hitz egiteko bitartekoa baino ez dira. Berrito asmatzen du poetak den oro. Ordutik ari gara besteok ere, konturatu barik, berrasmatzen Mallarme eta bere absolutua. ■

*Stephane Mallarme poeta frantziarra;
Paris, 1842– Valvins, 1898.*

